

Hemen jendea Altzatarra sentitzen da

Imanol Elizasu Orbegozo, Altzako Txapiñenea base-
rrian jaioa da. Orduan, kaxkuan eliza eta hiru etxe, zelaiak, baserriak, sagastiak...Gaztetan arrantzan, Gran Sol deritzan leku horietan ibilia da. Gero urte mordoxka garraio txofer lane-tan... Azken hamairu urte Kutxako sukurtsalean, zuzendaria da. Bere lan-gela Altzako fotoez hornitua eta mapa bat.


Mapa honetan ikusten duzun bezala hemen daukagu itsaso parte bat...

Zergatik diozu daukagu?

Altzatarrok sentitzen dugu gauza bat barrenean... nahi dugu gure nortasuna agertu nonbaitetik eta noski gure manifestapenak, izan garena, gure kultura eta ohitura zaharrak...hortik nahi dugu gure nortasuna azaldu

Zure haurtzarotik hona aldaketa izugarria.

Orain gauden toki honetan neronek bota nituen oilagarroak eta



istingorrek. Hemen den-darik ez zegoen. Eta begi-ra zein lasaia zen hau! Igoal txori bat ikusi Herrerara jaitsi, kartut-xoa erosi eta bueltan oraindik txoria. Aldaketa-rekin hemen negar asko egin dugu. Urteekin ohitu egiten zera...

Kanpotik etorritako jende asko dago. Altzako nortasuna zer?

Nik ikusten dut inte-grazio orokorra, auzo edo

herri bezala oso ona izan dela. Hemen jendea altzatarra sentitzen da. Badugu himno bat Altzakoa. Duela lau bat urte nahi izan genuen himno hori zabaldu eta festetan erabili, San Martzialetan, danborrada ondoren, herri osoak plazan kantatuz. Eta harrিতта gelditu nintzen zein harrera ona izan zuen, jende gazteen artean ere noski. Zeozer eskaini eta horrek Altzako

nortasunarekin loturarik badu onartua izaten da.

Nola ikusten duzu Kutxa Altzan?

Oso ondo ikusita dago, entitate bezela. Gero, noski, Kutxan parte hartzen dugun pertsonak eta segun nolakoak garen, horrela ere izango da Kutxa ikusia. Uste dut oso jende ona dugula Altzan. Bezero bezela ere, ona. Jende langilea. Kanpotik etorritakoak gutxiagokin pasatzen ikasiak dira hemen jaioak baino, eta haiek gehiago aurrezten dute. Kutxak auzoan behar diren zerbitzu guztiak eskaintzen ditu.

Larratxo, Altza eta Rotetan daude auzo hone-tako sukurtsalak. Bertan 23 langile ari dira lanean. Hauen artean euskara dakitenen portzentaia erdi-ra iristen da eta gehienak ulertu eta lehen atentzioa euskaraz emateko gai dira. Kutxa oso inplikatur dago bertako kultura garapenean. Imanolek dionez «in-iziatiba guztiak, kulturalak eta auzo-nortasuna indartze-ko badira, %100ean laguntzen du Kutxak». Imanol zuzendaria bera da bide eta ahalegin horretan sutsuki dabilena musika bidetik bereziki.

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

AGERIKO OPARIAK, Abenduaren 31ra arte zeure aurrezki-libreta eta Kontugainen.

Eta gainera, AGERIKO ZOZKETA berezia honako sari hauekin:

- BMW 316 i Compact kotxe bat
- 10 Thompson 25" telebistailu



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián